

ZENBAKIEN FAKTORIZAZIOA

Zenbakien faktorizazioa egitea ez da lan zaila eta beraz hori burutuko duen ordenadore-programa idaztea ere nahikoa sinplea izan daiteke.

Dena den, kasu askotan ordenadoreak berak kalkulu batzuk egin eta lortutako emaitzak itzultzea interesgarria izan arren, beste zenbait kasutan erabiltzaileak begirale hutsaren papera hartzea ere eragin dezake eta hau ebitatu nahian, guk geure programetan emaitzak erabiltzaileari berari eskatzen saiatzen gara.

Jakina da programak era honetara egiteak gauzak zailagotu egiten dituela edo gutxienez programa luzeagoak idazterazten dituela. Zergatik hori?

Erabiltzaileak normalean ez du erantzunak txukun, tarte bakar batekin, ordenatuta, etab. sartzeko ohiturarik izango, baina ezin zaio horregatik

bakarrik sartu duen erantzuna oker dagoela esan. Adibidez:

228 zeren faktorizazioa $2^2 \cdot 3 \cdot 19$ da, baina erabiltzaileak $228 = 3 \cdot 19 \cdot 2^2$ sar dezake eta erantzuna zuzena izango litzateke.

Puntu honetan erabaki bat hartu ohi da: erabiltzaileari erantzunak sartzean bete behar dituen arauak garbi adierazi edo berak sartu nahi duen moduan sartzeko askatasuna (osoa ez bada ere) utzi.

Erabaki hau hartzerakoan kontuan izan behar da, noski, bigarren bidea interpretatu beharko duela nolabait bere emaitzarekin bat datorren ala ez egiaztu ahal izateko.

Guzti hau azaltzearen arrazoia esku artean dugun programaren zatirik handiena erabiltzaileak eman-dako erantzuna interpretatzera zuzendua egotea da.

Hona hemen programa:

```
10 REM FAKTORIZAZIOA
20 DIM Z(10,3),S(10,2)
30 SCREEN 2:SCREEN 0:KEY OFF
40 RANDOMIZE TIMER
50 GEH$="B"
60 WHILE GEH$="B" OR GEH$="b"
70   CLS:COLOR 29:LOCATE 12,32:PRINT "ITXARON ARREN!!!"
80   ALE=INT(RND*9999)+1:ZEN=ALE
90   FOR I=1 TO 10:Z(I,1)=0:Z(I,2)=0:Z(I,3)=0:NEXT I
100  FOR I=1 TO 10:S(I,1)=0:S(I,2)=0:NEXT I
110  J=0:I=2
120  WHILE I<=INT(ZEN/2)
130    KONT=0
140    WHILE ZEN-INT(ZEN/I)*I=0
150      KONT=KONT+1:ZEN=INT(ZEN/I)
160    WEND
170    IF KONT>0 THEN J=J+1:Z(J,1)=I:Z(J,2)=KONT:Z(J,3)=0
180    I=I+1
190  WEND
200  IF J=0 THEN J=1:Z(J,1)=ZEN:Z(J,2)=1:Z(J,3)=0:GOTO 220
```

```

210 IF ZEN<>Z(J,1) AND ZEN>1 THEN J=J+1:Z(J,1)=ZEN:Z(J,2)=1:Z(J,3)=0
220 CLS:COLOR 10:LOCATE 1,28:PRINT ZENBAKIEN FAKTORIZAZIOA:COLOR 11:
   LOCATE 2,28:PRINT STRING$(23,61)
230 LOCATE 22,5:COLOR 10:PRINT ALE::COLOR 2:
   PRINT"zenbakiaren faktorizazioa: ":";B=POS(0)
240 S$="":L=1:LUZERA=40:TE$=INKEY$:WHILE TE$<>"":TE$=INKEY$:WEND:TE$="":
   COLOR 12
250 WHILE L<=LUZERA AND ASC(TE$)<>13
260   TE$=""
270   WHILE TE$="" OR (LEN(TE$)=2 AND RIGHT$(TE$,1)<>"H" AND
      RIGHT$(TE$,1)<>"P")
280   TE$=INKEY$
290 WEND
300 IF ASC(RIGHT$(TE$,1))<>8 THEN 370
310   IF L=1 THEN TE$="":GOTO 460
320   IF RIGHT$(S$,1)="#" OR RIGHT$(S$,1)="&" THEN 340
330     L=L-1:S$=LEFT$(S$,L-1):PRINT CHR$(29);CHR$(29);_"";CHR$(29):::
      GOTO 460
340 COLOR 12:PRINT CHR$(29);_"";CHR$(29);
350 IF RIGHT$(S$,1)="#" THEN PRINT CHR$(31); ELSE PRINT CHR$(30);
360 PRINT "_"";L=L-1:S$=LEFT$(S$,L-1):GOTO 460
370 IF ASC(RIGHT$(TE$,1))<>72 THEN 410
380   IF LEN(TE$)=2 AND CSRLIN=22 AND L>1 THEN PRINT CHR$(29);_"";
      CHR$(29);CHR$(30)::COLOR 12:PRINT "_"; ELSE GOTO 400
390   IF RIGHT$(S$,1)="&" THEN L=L-1:S$=LEFT$(S$,L-1):TE$="&"
      ELSE S$=S$+"#":L=L+1:TE$="&"
400 GOTO 460
410 IF ASC(RIGHT$(TE$,1))<>80 THEN 450
420   IF LEN(TE$)=2 AND CSRLIN<22 AND L>1 THEN PRINT CHR$(29);_"";
      CHR$(29);CHR$(31)::COLOR 12:PRINT "_"; ELSE GOTO 440
430   IF RIGHT$(S$,1)="#" THEN L=L-1:S$=LEFT$(S$,L-1):TE$="&"
      ELSE S$=S$+"&":L=L+1:TE$="&"
440 GOTO 460
450 IF ASC(TE$)<>13 THEN LOCATE CSRLIN,POS(0)-1:PRINT TE$;"_"";S$=S$+TE$:
   SOUND 2000,.8:L=L+1
460 WEND
470 ERAN$="":JJ=1
480 WHILE JJ<=LEN(S$)
490   IF MID$(S$,JJ,1)<> " THEN ERAN$=ERAN$+MID$(S$,JJ,1)
500   JJ=JJ+1
510 WEND
520 S$=ERAN$
530 AL=0:A=INSTR(1,S$,"#")
540 WHILE A>0:AL=A:A=INSTR(AL+1,S$,"#"):WEND
550 IF AL=0 THEN 570
560   AN=INSTR(AL+1,S$,"&"):IF AN=0 THEN S$=S$+"&"
570 I=0
580 WHILE LEN(S$)>=1
590   P=1
600   WHILE P<=LEN(S$) AND MID$(S$,P,1)<>". AND MID$(S$,P,1)<>"#":P=P+1:WEND
610   I=I+1:S(I,1)=VAL(MID$(S$,1,P-1))
620   IF MID$(S$,P,1)<>"#" THEN 640
630     P2=INSTR(1,S$,"&"):S(I,2)=VAL(MID$(S$,P+1,P2-P-1)):P=P2+1:GOTO 650
640   IF MID$(S$,P,1)=". THEN S(I,2)=1
650   IF LEN(S$)>P THEN S$=RIGHT$(S$,LEN(S$)-P):GOTO 670
660   S$="":IF S(I,2)=0 THEN S(I,2)=1
670 WEND
680 K=1:ZUZ$="B"
690 WHILE K<=I AND ZUZ$="B"
700   KK=1:AUR$="E"

```

```

710 WHILE KK<=J AND AUR$="E"
720   IF Z(K,1)<>S(KK,1) THEN KK=KK+1 ELSE AUR$="B"
730 WEND
740 IF AUR$="E" THEN ZUZ$="E":GOTO 760
750   IF Z(K,2)<>S(KK,2) OR (Z(K,2)=S(KK,2) AND Z(K,3)=1) THEN ZUZ$="E"
      ELSE Z(K,3)=1
760   K=K+1
770 WEND
780 LOCATE 24,20:COLOR 3
790 IF ZUZ$="B" AND I>0 THEN PRINT 'ONGI!!! Faktorizazioa ongi burutu duzu';
      ELSE PRINT "GAIZKI!!! Ikus emaitza.";
800 KOP=0:FOR I=1 TO J:KOP=KOP+Z(I,2):NEXT I:KOP=KOP+1
810 IF KOP>10 THEN KOP1=10:KOP2=KOP-10 ELSE KOP1=KOP:KOP2=0
820 LOCATE 6,21:COLOR 10:PRINT USING "#####";ALE;
830 FOR I=1 TO KOP1:LOCATE 5+I,28:PRINT " ":NEXT I
840 FOR I=1 TO KOP2:LOCATE 5+I,50:PRINT " ":NEXT I
850 L=6:Z=1:COLOR 13:ZEN=ALE
860 FOR I=1 TO J
     FOR K=1 TO Z(I,2)
        LOCATE L,29+(Z-1)*22:PRINT Z(I,1);
        ZEN=INT(ZEN/Z(I,1))
        IF L<15 THEN L=L+1 ELSE L=6:Z=2
        LOCATE L,21+(Z-1)*22:PRINT USING "#####";ZEN;
     NEXT K
930 NEXT I
940 LOCATE 19,21:COLOR 10:PRINT USING "#####";ALE;:PRINT " =";:COLOR 13
950 FOR I=1 TO J
960   PRINT Z(I,1);:IF Z(I,2)>1 THEN LOCATE 18,POS(0)-2:PRINT Z(I,2);
970   IF Z(I+1,1)>0 THEN LOCATE 19,POS(0):PRINT ".";
980 NEXT I
990 FOR JJ=1 TO 3000:NEXT JJ:LOCATE 24,1:PRINT SPC(79)
1000 COLOR 11:LOCATE 25,19:INPUT 'Beste faktorizaziorik nahi al duzu (B/E)?',
      GEH$
1010 WEND
1020 CLS
1030 END

```

Programaren zatiak:

70-210: 1etik 9999ra bitarteko zenbaki aleatorio bat sortu eta faktoreetan deskonposatu. Faktoreek Z taulan gordetzen dira. Taula honetako osagai bakotza hiru elementuz osaturik dago:
 $Z(I,1) \rightarrow$ Faktorea bera
 $Z(I,2) \rightarrow$ I. faktorearen agerpen-kopurua (berretzailea)
 $Z(I,3) \rightarrow$ faktore hori asmatua dagoen ala ez adieraziko du.

220-460: Erabiltzaileak sakatzen dituen teklen kontrola eramatzen da, harik eta honek <RETURN> sakatzen duen arte. Erabil daitezkeen teklak ↑, ↓, borratzeko tekla eta zenbakiak dira.

470-670: Erabiltzaileak sartutako katea zatitu eta faktore moduan gordetzen da S taulan; hots, berrekizuna, S(I,1), eta berretzaile, S(I,2), bikoteak.

680-980: Programak sortu duen emaitza (Z) eta erabiltzaileak emandakoa (S) konparatzen dira eta dagokion mezua ematen (680-790). Edozein kasutan emaitza zuzena era-kutsiko da (800-980).

Oharra:

Kasu honetan zenbakiak aleatorioki hartzen dira eta gerta daiteke ateratzen den zenbakia oso handia izatea, oso faktore gutxi izatea edota zenbaki lehenia izatea. Hau erraz konpon daiteke zenbakia hiru aleatorio biderkatuz kalkulatzen badugu. Egizu proba! ■

—

EUSKAL ADITZ LAGUNTZAILEA (Softwarea)

*Ordenadorea erabiliz,
aditzarekin jolastuz, milaka
ariketa egin ditzakezu*

JADANIK KALEAN